

Semealabak

Getxoko Gurasoen Eskolako aldizkaria • Urria 2007 • 17 Zk



Nire egunerokoa

Urtero bezala, ikasturtearen hasiera iritsi da, eta hainbat aldaketarekin pentsatu behar dut.

Ekainean gauzak gaizki amaitu ziren, eta ama uda osoan zehar nirekin haserre egon da. Planeatuta nituen gauza ugari ezin izan ditut burutu.

Urteroko udalekuetara ez nintzen joan, halaber ez dit nire lehengusuekin bi aste pasatzera joaten utzi. Oharrarazi ninduen, baina pixka bat ulerkorragoa izan ahal zitekeen. Ez al da ohartzen egin nahi dudanaren hein bat egiten uzten badit hobeto senti arazten nauela eta lan gehiago egiteko motibatzen nauela?

Aurten, dena erabat ezberdina izango da. Klasean adi egongo naiz, azalpen guztiak jarraituz eta ulertzen ez dudana galdetuz. Etxeko lanak egunero egingo ditut eta klasean ikusten duguna ikasten joango naiz.

Pentsatzen ari naizenari buruz ez diot ezer esango. Argi eta garbi dago ez duela sinetsiko. Eta egia esan, nire ahalegin guztiak egiten ditut. Baina oraingo hau, aukera erabakigarria izango da.

Amak niregan konfidantza pixka bat gehiago izatea gustatuko litzaidake. Egingo dudana oso zaila da. Agian batzutan ez dut beteko, eta indarrak nahiz gogoia falta ahal izango zaizkit. Agian espero ditudan emaitzak ez dira berehala antzeman ahal izango.

Halaber hobea izango litzateke nirekin haserretuko balitz, hain urduri ez jartzea. Hori da gutxien gustatzen zaidana. Horrela jartzen denean ez dago berarekin hitz egiteko modurik.

Ikasketak ez dira nire bizitzako gauza garrantzitsu bakarra, beste gauza asko ere gustukoak ditut. Konturatuko balitz!!

Niretzako denbora behar dut, eta ez da sari bat, eskubide bat eta behar bat baizik.





Berriro hasiko garen honetan.

Gogora ezazu ekaina. Zure nekea, zure seme-alabena. Eskolako emaitzengatik pasatako urduritasuna. Etxeko giro txarra. Oporrak iristeko zenuten gogoia eta beharra. Badirudi harremanak ikasturtearen erritmoarekin hondatuz joaten direla, eta oporrak behar direla, aire-aldaketa bat.

Orain, oporrak pasa dira. Jadanik hauek amaitzeko irrikaz zeunden. Hainbeste egun zure seme-alabekin hain zuzeneko harremana izanez! Jadanik batzuek besteetaz nekatuta zaudete. Baina ikasturtearen hasierarekin pentsatze hutsak, kirioak dantzan jartzen dizkizu.

Garrantzitsuena aurretiazko eskarmentuekin kontatu izatea da. Aurreko urteetan pentsa ezazu. Zure seme-alabari martxan jartzea kostatzen zitzaiona, ikasteko esertzea, etxeko lanak egitea. Eta halaber oso garrantzitsua da horri aurre nola egiten zenionaz gogoratzea. Azkenean nerbioek gainditzen zintuzten, oihu egiten

zenuen, mehatxu egiten zenuen, zigortu egiten zenuen...

Seme-alabekin izaten den eguneroko harremana zaila gertatu ohi da, eta zure neke propioa eranstean diozunean, zure erantzunak bideratzea zaila gertatzen da.

Halaber aurreko ikasturtearen birpasa egin beharko litzateke oraingoan hainbat akats ez errepikatzeke; Aurrea hartu ahal izateko, eta garai berri honetako harremanak positiboagoak izateaz gainera familiako kideen arteko loturak areagotzeko lagungarriak gerta daitezten.

Garbi dago, familiako giroa, gure seme-alabengan eragin gehien duena dela, urrats eta muga gehienak markatzen dituen izanik, eta kontuz ibili behar da ondorengoekin:

- Portaera txarrari dagozkion behin-behineko sariak. Kasu egite soilak, oihu bat egiteko bada ere, askotan gustatu ez zaigun portaera hori finkatu egiten du.
- Eskaladaren amarrua. Nahi dutena

lortzen duten arte gero eta portaera negatibo nahiz okerragoak izan ohi dituzte.

- Jarrera egokiei kasurik ez egitea. Zure gustukoak diren portaerak ala beraiek izatea nahi dituzunetik hurbil daudenak azaltzen dituztenean, maiz zerbait positibo esatea ahaztu egiten zaizu.
- Etxeko beste pertsona batzuek nola portatzen direnaz ohartzea. Askotan, hain deitoragarria iruditzen zaizun portaera hori aitak ala amak duenaren berdina izan ohi da.

Halaber aurreko ikasturtearen birpasa egin beharko litzateke oraingoan hainbat akats ez errepikatzeke

SENDI proiektua

- Instrukzioak eta aginduak emateko modua. Batzuetan oso ahulak izan ohi dira (garbiak eta zehatzak izan beharrean), ala oso urriak (ez dakite beraietaz zer espero den), ala bere adinerako desegokiak, edo bestela une desegoki batean esandakoak (telebista ikusten ari direnean), ala gorputzaren hizkuntzarekin ez datoz bat (beste gela batetik hitz egiten diezu).
- Jasotzen dituen mezu emozionalak. Portaerak direla onartzen ez ditugunak eta ez beraiek adierazterakoan kontuz ibili behar dugu.
- Zigorren erabilera desegokiak. Zeinen artean ondorengoak bereizi ahal baitira: mehatxuak ez betetzea, aita eta amaren arteko kontraesanak, une bateko kontrol galtzearen ondorioz zigorra jartzea eta, eguneko animu-egoeraren arabera jarrera zehatz bat zigortzea ala ez.

Garrantzitsua da ulertzea zure seme-alaben portaera desegokiaren helburua ez dela zu izorratzea, ez da kontu pertsonal bat, bere behar propioak asebetetzea baizik, eta behar hauek, bere adinean, helduak garenean baino maneiatzen zailagoak gertatu ohi dira.

Gure helburua da Getxoko umeen gurasoek euskara erabiltzea eta belaunaldien arteko hizkuntza transmisioan eragitea. Proiektu hau iaz jarri genuen martxan Getxoko Udalak eta Egizu Euskara Elkarteak, ikastetxe eta Guraso Elkarteekin laguntzarekin. Bertan guraso eta ume askok parte hartu zutela ikusita, aurtun proiektua zabaldu eta handitu egin dugu.

SENDI Proiektua hauentzat da: Getxoko ikastetxe guztietako A, B eta D ereduak 2-12 urteko ikasleen gurasoentzat eta Getxon bizi diren guraso guztientzat, nahiz eta seme-alabak beste udalerrri bateko ikastetxeetan egon. Begirale, hezitzaile eta irakasleentzat ere bada proiektu hau. Egitasmo hau denontzat da: euskaldunentzat, erdaldunentzat eta zer edo zer dakitenentzat edo ikasten ari direnentzat.

Egitasmoa 2007-2008

SENDIren jardueren bitartez familiak euskararantz hurbildu nahi ditugu eta horretarako hainbat ekintza antolatu



dugu, gaztelaniaz eta euskaraz: ikastaroak gurasoei etxerako lanekin laguntzeko, kanta eta dantza tailerrak, ipuin tailerrak, sukaldaritza saioak umeekin, gurasolagun taldeak mintzapraktika egiteko, asteburuko barnetegiak umeekin batera, gurasoentzako hitzaldiak, etab. Ekintza hauek doan edo oso merke izango dira eta begirale zerbitzua egongo da umeak zaintzeko. Horretaz gain, gurasoei euskara ikasteko Udalaren dirulaguntzen berri emango diegu.

Ikasturte hasieran informazio zehatzagoa bidaliko dugu ikastetxe eta etxe guztietara. Bitartean, harremanetarako hemen gauzkazue:

sendigetxo@yahoo.com,
www.blogari.net/sendi eta 685 732 963 (Lander).

Irakurriz ikastea ...

Haurrek arreta handia eskatzen dute, zaintze ugari behar dute, erritmo bizian doaz aurrera... Eta beti ez dugu jakiten nola jokatu une bakoitzean. Hezteaz ari garenean, guraso ugari nekatuta egoteaz gainera haurrek erabat bereganatuta ditzutela onartzen dute eta horrek ez du gaizki jokatzeko ari direnik adierazten.

'Los niños vienen sin manual de instrucciones' zure seme-alaba haserretzen denean nola trataturik buruzko zalantzak

ebazten laguntzen dizun obra bat da, hari arauak ulertarazi eta egunerokotasunarekin egokitzen laguntzeko baliabideak ematen dizkizu, hezitzaile-estrategiak garatzeko eta jarrera egokiak sustatzeko giltzak eskaintzen dizkizu...

Oso praktikoa, kasu errealek ugarirekin zein egunekoekin identifikatuta sentitu ahal baita.

Aholku bat: zuzenean irtenbide nahiz errezetetara ez ezazu jo (heziketako oso gutxi

daude); proposatutako irakurketaren segida jarraitzen saia zaitetz eta aurkezten dizkizugun pistei buruz zalantzarik gabe zure bikote, beste guraso ala lagun batzuekin hitz egin ezazu hauek benetan modu ezberdinean hezten lagungarri gertatu ahal dakizkizun.



« Los niños vienen sin manual de instrucciones »
Giménez, Monserrat . Ed. Cuatro. (15 € gutxi gora behera.)



Getxoko Gurasoen Eskola



Informazio gehiago nahi baduzu, telefono zenbaki honetara dei dezakezu.

94 466 01 30



- Ikastaroen iraupena hiru, lau edo bost ekitaldietakoa da.
- Adierazitako eguna lehen ekitaldikoa da.
- Ateko eguna eta ordutegia bera izango dira ikastaroa irauten duen aste guztietan.
- Ez dago alde zuzenik izena eman behar. Nahikoa da lehen egunean bertara joatearekin, adierazitako ikastetxean.
- Edozein arrazoiengatik lehen egunean joaterik ez bazenu, ondoko ekitaldietan egin dezakezu.
- Zure seme-alabak ikastetxe horretakoak ez badira, eta ezagutzen ez baduzu, atezaindegira edo Guraso Elkartetara jo ezazu, ekitaldiak non egiten diren esan diezazuten.
- Jarduerak doanekoak dira.
- Lehen egunean gutxienez hamabi (12) pertsona agertzen ez badira, bigarren aldiz saiaturako da, eta horren ondoren, parte hartzailearen gutxienez kopurua betetzen ez bada, bertan behera geldituko da. Zuen alderdi horretan daukazuen beste aukeren gaineko informazioa jakinaraziko zaizue. Garrantzitsua da lehen egunean bertaratzea.

Ikastaroen Egutegia: Urria - Azaroa 2007

	IKASTETXEA	GAIA	HASTEKO EGUNA			ORDUA
urria	Trinitarias	Sentimenduak komunikatzea	astelehena	8	urria	19:00
	Europa	Gurasoentzako psikologia ikastaroa	asteartea	9	urria	19:00
	CP Geroa	Estresa nola bideratu eta kontrol pertsonala	asteazkena	10	urria	15:00
	Azkorri	Pentsatzen, ikastea, erabakitzen ikastea	asteazkena	10	urria	19:00
	CP Romo	Balioen heziketa	osteguna	11	urria	15:00
azaroa	Divina Pastora	Autoestimua hobetuz	astelehena	12	azaroa	9:00
	IES Aixerrota	Inteligentzia emozionala	astelehena	12	azaroa	19:00
	CP Zubilletas	Pentsatzen, ikastea, erabakitzen ikastea	asteartea	13	azaroa	9:00
	IES Artaza-Romo	Estresa nola bideratu eta kontrol pertsonala	asteartea	13	azaroa	19:00
	CP Larrañazubi	Estresa nola bideratu eta kontrol pertsonala	asteazkena	14	azaroa	9:00
	IES Julio Caro Baroja	Inteligentzia emozionala	asteazkena	16	urtarrila	19:00